

Koloreen bilakaera: euskal kasua

Txema Preciado
EHUko irakaslea

Kolorea fenomeno kulturala dela eta bilakaera historikoan kokaturik dagoela abiapuntutzat hartuz, euskal kulturaren nola eman den koloreen bilakaera gaurdaino zehazten saiatzen da artikulu hau. Erabilitako oinarriak azalduz eta grafikoez lagundurik, bereizten diren etapan berri ematen du, hauetan faseak bereiziz eta bilakaeraren barneko logika ulertzeko beharrezkoak diren pausoak eskainiz. Hauei lotuta, bazterrezinezko gogoeta batekin bukatzen du: honako hau urrats bat izanda, koloreen fenomenoaren egoki ulertzeko beste puntu batzuk ere kontutan hartu behar dira, bertan (garatu gabe, jakina) azaltzen direnak hain zuzen.

Taking as starting point the fact that colour is a cultural phenomenon and that it is located in the historical development, this article attempts to specify the way in which colours have evolved in the Basque culture up to now. By explaining the basis which have been used and with the aid of graphs, it gives an account of the stages that are distinguished in their evolution, differentiating at the same time the phases which take place in them. It also offers guides, necessary to understand the internal logic of the development. The article ends with an unavoidable reflection: this work has been but one step, other matters have to be taken into account if we want to understand properly the colour phenomenon, precisely the ones which have been dealt with in this work but have not been developed.

Sarrera

Koloreari buruz hitz egitea sarri askotan itsaso zabal batean aritzea da, hain ugari dagozkion ikuspuntuak, disziplinak, aztertzeko posibilitateak... ezin ahaztuz inplikaturiko arlo gehienetan (guztietan ez bada) ematen den elkarren arteko eragina.

Egungo egoera eta erabilera nagusiaren aurrean (mendebaldekoa dena eta "unibertsalista" izenda daitekeena), Euskal Herriak nola hauteman eta egituratu duen kolore-mundua ulertzeko urrats bat eman nahirik, artikulu honen xedea euskal kulturak egindako koloreen bilakaera aztertzea da. Bi premisatan oinarritzen da lan hau:

- Kolorearena, besteak beste, fenomeno kulturala da eta euskal kulturak (eragin nabarmenak izanda ere) bere ibilbide propioa egin du.
- Eta honen haritik, egun dauden koloreak (eta oro har espekto kromatikoaren sailkapena) bilakaera historikoan sortuak dira.

Egitasmo honek, filologo edo linguista izan gabe, hizkuntzarekin lan egitera garamatza, beste edozeren gainetik hizkuntzak sortzen baititu sinboloak, abstrakzioak... eta kolorea ez da gauzen ezaugarri material hura, gizakiok izaten dugun sentsazioa baino (izen bat atxikita, elkar ulertzeko). Maiz aipatutako pigmentu eta tindakarien gauzatasun hura ez da –azken finean– gure sentsazioa oinarritzen den materialitatea baino.

Eta sentsazioa denez, kolorea ikertu nahi izanez gero, lengoaiarekin lan egitera behartuta gaude; izan ere hau

hiztegi kromatikoarekin oso lotuta izatea gauza arrunta da eta ez arrazoirik gabe, jakina, koloreen hautematea eta lengoaia kromatikoa biziki erlacionaturik baitaude; azken finean, hizkuntzarik gabe ez genukeen koloreen berri.

Ikerlari asko aritu da hizkuntza eta pentsakeraren harremanak aztertzen (Behaviorismoaren sortzailatzat hartzen den J. Watson, "Sapir / Whorf" deituriko hipotesiaren asmatzaileak, Noam Chomsky eta ikuspuntu "innatista" deiturikoa, Jean Piaget bera, Vygotskyren teoria sozio-kulturala...) eta zein nagusi edota kulturak jokatzen duen papera zehazten denak ez badi-ra bat etortzen, harreman hauek agerikoak direla baieztatu daiteke zalantzarik gabe; erreferentzia bat aipatzearren, Luriak (1980: 47-58) eginiko esperientziek erakusten duten legez, kolorearen hautematea ez da ematen hizkuntzaren egitura lexiko eta semantikotik at.

Kolore-hitzekin, nahitaez, lan egitera beharturik egonda, lehenengo bereizketa egin beharrean aurkitzen gara: *oinarrizkoak*, hots, orokorrak, hedatuta eta maila guztietan erabil daitezke; halere, abstraktuak diren heinean ez dira ongi egokitzen egoera guztietara eta erabilera propioak sortzen dira, jantzi, ile, abere eta abarrei buruzkoak, hitz batez *zehatzak*.

Brent Berlin eta Paul Kay-ren lana (1969) halabeharrezko erreferentziatzat hartuz, geuregana ditzakegu oinarritzko koloreak finkatzeko irizpideak eta bertan azaltzen diren oinarritzkoak geureak direnekin aldera ditzakegu:

Mendebaldeko hizkuntzak		
white	blanc	blanco
black	noir	negro
red	rouge	rojo
green	vert	verde
yellow	jaune	amarillo
blue	blue	azul
brown	marron	pardo/marrón
purple	violet	morado/púrpura
pink	rose	rosa
orange	orange	naranja
grey	gris	gris

Euskara	
ZURIA	
BELTZA	
GORRIA	
BERDEA	orlegi, musker
HORIA	beilegi, laru
URDINA	oztin, dundu, mora, azula, bluia
MARROIA	arre, uher, nabar, musk
MOREA	brioleta, ubel, amusko, lila
ARROSA	
LARANJA	
GRISA	minima, hits, beluri bertzin, bretoia... ¹

Zer dugu, orduan?

Zerrenda nagusiari dagokionez, kolore-hitz gehienak, egokitze fonetikoak eginda, maileguzkoak dira.

Zerrenda nagusian agertzen diren euskal kolore-hitzak (beltzez nabarmenduak) oinarritzkoenak dira, berdea izan ezik.

Egon badaude beste kolore-hitz batzuk, baina aipatutakoen beste forma bat dira ('orlegi', 'musker'...), esanahia ez dator bat kolore zehatz batekin, tartekoak, finkatu gabeak eta bizidunei atxikiak bereziki baitira ('nabar'...), kolorea baino itxura orokorra hartzen dute kontutan ('hits', 'beluri'...), ez dira oso hedatuak, alde batzuetakoak baino ('laru', 'dundu'...).

1. Oinarriak

Zein izan zitekeen ibilbide historiko hori finkatzeko, oinarri batzuk aipatzera nator. Halere oharpen orokor bezala, esan beharra dago kolore-hitzen gaurko eta jatorrizko esanahiak ez datozela zeharo bat, aldatuak izan baitira hauek (oso nabarmenki batzuetan), egokituak kolore-hitz

berriek berezko eremuak beregana zitzaten. Edozein modutan, hona hemen erabilitakoak:

- a) *Hitzen antzinatasuna*: Kolore-hitza ea "betidanik" ezaguna den edo berandu batean sorturikoa. Erreferentziak honi buruz daturen bat edo beste eman dezaketen liburuak dira, Mitxelenaren *Textos arcaicos vascos*, Landuchioren *Hiztegia*, e.a.
- b) *Hedadura. Euskalkiak*: Ea lurralde guztietan hedatuta dagoen edo alde batzuetara mugatuta bakarrik, euskalkiekin lotuta... Bereziki erabilitakoa Azkueren hiztegia da.
- c) *Sailkatzeko erabiliak*: Abere-mota, egur mota edota edozein gauza sailkatzeko erabiliak izaten direnak. Kasu honetan informazio-iturriak atsotitzak dira, entzun eta erabiltzen ditugun adierazpideak eta zenbait liburutan aurki daitezkeenak: Mokoroa, Lartzabal, Azurmendi...
- d) *Toponimia*: Ea zeintzu kolore-hitz diren toponimietan agertzen direnak. Mapak, liburuak eta erabilera arrunta dira informazio-iturriak.
- e) *Beste esanahirik*: Ea hitz horrek kolorea ez den esanahirik duen. Kasu honetan ere literaturan, erabi-

1. Hauei buruz ikus daiteke Perurena 1992: 221-249.

lera arrunteko hiztegiak dira erabil-takoak.

Hau dela eta, zehaztasunak (eta-petan aipatuko dira nabarmenenak)

- a) *Hitzen antzinasuna*
- b) *Hedadura. Euskalkiak*
- d) *Sailkatzeko erabiliak*
- e) *Toponimia*
- f) *Beste esanahirik*

zuria beltza gorria urdina nabarra horia berdea arrea

X	X	X	X	X	•	•	•
X	X	X	X	X	•	X	
X	X	X	•	•	•		
X	X	X	X	X			
X	X	X	X	X			X


Oro har eta zehaztasunen beharraz jabetuta, datu hauek aurrean izanik bi multzo osatzen dira: hitz zaharrekin bata, jatorriz euskaldunak direnak eta seinalaturiko oinarrietan lekua dutenak; bestea, hitz berrieekin osatua, jatorri erdalduna dutenak eta koloreari soilik edo ia soilik atxikitako esanahia dutenak.

2. Ibilbide historikoa gaurdaino

2.1. Zuria-beltza-gorria

Euskal kasuari dagokionez funtsezko hiruki honetan oinarria dugulakoan nago: «Euskal etorkiari sakonkienik lotuak diren koloreak dira hiru: beltza, xuria eta gorria» (Larzabal 1975: 401). Halere, badirudi unibertsala dela hasieran ZURI eta BELTZarekin egiten den etapa eta ez da harritzekoa geurean ere horrela izan zitekeela pentsatzea. Edonola ere, zuri eta beltza baino ARGITASUNA - ILUNTASUNA (kolore argi eta ilunak, hotz eta beroak, heze eta lehorrak...) jartzea egokiagoa litzateke, 1. irudian ikus daitekeen bezala.

beharko lituzkeen koadroa osa daiteke, “puntuak (•)” kasu batzuk bai baina ez erabat, eta “aspa (X)” bete-betean ematen dela adierazteko erabiliz. Honen gisakoa:




1. irudia

Bikoiztasun honetan inplikazioak ugariak dira, funtsezkoena egun eta gauarena, baina baita beste batzuk ere: gizonezko eta emakumezkoena, on eta gaiztakeriarena, logiko eta sensitiboarena... Egun ere, ildo horretako adierak hartzen dituzte hitz hauek; adibidez, argia adierazten duen “begi-zuri” edota “goibel”, “beltza dago zerua”... ilun adierarekin.

Bi muturreko hauen artekoak ñabardurak ziratekeen eta zein gertuago hura erreferentzia (iluntasun handiagoa, txikiagoa edo, kasu). Hauen aurrean sortuko zen hirugarren kolorea, edota “lehenengoa”, benetako kolorea kromatismo zehatzaren gaitetik: GORRIA. Kolorea, benetako kolorearen sustrai hori gaztelaniaz azaltzen dela esan daiteke:

Color > colorear > colorado --->
enrojecer

eta euskara oso aparte ez zegoela dirudi, Landuchiok aipatzen duenari jarraituz gero: «Colorado: colore daucana edo gauça gorria» (1562: 83).



2. irudia

Aipaturiko oinarriak bete-betean ematen dira hitz hauekin erraz ikus daitekeenez:

Antzinatasuna: Ez dute inongo arazorik ematen. Mitxelenak (1964) arkaikotzat jotzen du *gorri* (19 or.), 984. urtean kokatuta agertzen da *beltz* (41 or.) baina II. mendearen hasierakoa ere izan daitekeela aipatzen du (17 or.) eta *zuri* ziurtasunez XIII. mendean agertzen da (33, 37, 38 orr.).

Hedadura: Erabatekoa; aipa daitekeen gauza bakarra aldaera desberdinak dira: *beltz-baltz / zuri-txuri-xuri-zurixe / gorri-gorrix*.

Sailkatzeak: Zeharo sustraitua eta adibide ugari: *ardo zuri, beltz, gorri; haize gorri, beltz, zuri; langile zuri, beltz; egur zuri, gorri...*

Toponimia: Sarrien ematen direnak dira: *Aitz-txuri, Ortzanzurieta, Pagazuri, Mendibel, Harribeltzeta, Iturbaz, Gorriaran, Bidegorrieta, Arrigorri, Aizkorri, Otsogorrigaina, Arrigorrista...*

Beste esanahirik: Besteetatik nabarmentzen dira koloreez gain beste esanahirik ere izaten dituztelako eta adibide ugari dago: *Irri-zuri, ipurtzuri, gizon zuri 'nagia', moko-zuri, minzuri, zurikeriak, astegun (asteburun) zuri, haize zuri, zuritu* (1'azala kendu', 2'burua zuritu', 3'patrika zuritu'),...; *egun beltza, negu beltza, haize beltza, baltza sakatu, lana beltz egin, lei (horma) baltza...; kale gorrian, gose gorria, miseria gorria, etxea gorri gelditu, negu gorria, larru gorritan egon, ume gorri, haize gorri...*

Hiruki hau gogoan harturik, non gelditzen dira beste koloreak? Non berdea, urdina, marroia, horia...? Begibistakoa da hitz hauek eta gure garaikoez ez dutela zabalera semantiko bera eta besteetan gertatu izan den bezala, hemen ere hauen eremua murriztu behar izan dute kolore-hitz berriak sartu direnean. Horrela, aipatzen ari garen gorriak bere baitan hartuko zituen gaurko gorriaz gain, horia, laranja, marroia, arrosa, lila... Oso bestelako mugak, beraz, kromatismoari dagokionez. Bestalde, aipatzen ari naizen adiera, bere erabilera kromatikoa alegia, ez dut uste bereziki nabarmena zenik; kolorearena bat baino ez zelakoan nago.

Honaino (zehaztasunen bat edo beste kenduta) Berlin eta Kay-ek planteiatzen dutenarekin bat etortzeko ez dago arazorik. Halere, hemendik aurrera, garrantzi handiko berezitasunak direla, aldendu egingo gara nabarmenki.

2.2. Urdina

Laugarren kolorea eta, berebat, oso bigarren mailakoa besteekiko. Berez ez-koloretzat edo ez benetako koloretzat jo beharko genuke eta esanahi

kromatikoaren aldetik, bere kokapena zeharo adierazgarria delakoan nago: zuri-beltzaren artean eta nonbait gorriarekin kontrajarria. Urdin hau ez da egun ulertzen den (Gipuzkoan batik bat) oinarrizko kolore borobila, eta alde kromatikoa gailendu baldin bada, azken urteotako kontua delakoan nago.

Egun 'azul, blue, bleu' delakoarekin identifikatzen da nagusiki baina honen parekotasuneza agerian jarria izan da behin baino gehiagotan, Luis de Villasantek (1989: 76) aipatutakoa kasu:


Urdin hori zer den ez dugu ongi jakiten. Nik Arantzazuko baserritar zahar bati (Ladislao Odriozola) galde-tu nion ea zer zen *urdin*. Eta erantzun zidan: «Urdin da zuri nahastua»².

Berez tartekoa, nahastutakoa da eta horretaz jabetzeko hartzen dituen adierak besterik ez da ikusi behar.

1989.ean Aramaion burututako ikerketan garbi azaltzen da ulerkera hau: kolore bezala ez zen hautematen eta esanahi kromatikoa atxikiz gero, besteak beste, adiera hauekin uler zitekeen: "berde", "azul", "marroi", "gris". Oso adierazgarriak dira gainera, emandako azalpenak³ eta ildo beretik datoz lamina batekin identifikatzeko egon ziren zailtasunak, zinez adierazgarriak (ibid. 287-289).

Hirugarren irudiak urdinaren egoera azaldu nahi du, zuri eta beltzaren

artean kokatuta, haiekiko eraginpean oraindik eta nonbait "ez-kolore" horietatik bereizita. Aurrez aurre, berriz, gorria nagusi:



3. irudia

Gure aurrean dugu zabalera semantiko handia zuen hitz zahar bat⁴, gaurregun, leku batzuetan behinik behin, adiera gehienak mantentzen dituen. Kromatikoki hartzen dituen esanahiak, honako hauek dira⁵:

Azula: Egun nagusi izanda ere, hasieran bereziki grisarekin oso lotuta ulertu izan zelakoan nago, 'azulino', 'azulado' adieran eta ez gaurkoan. Zeru urdina ez da / zen 'azul' (horretarako *oskarbi* jatorragoa), eta esapide hau halako 'kalima' duenean (baina ez lainotuta, jakina) erabiltzen da / zen. Joseba Sarrionaindiak (1985: 84) egoki aipatzen du hau:

gipuzkeraz 'urdina' esaten bada ere ez da erdarazko azul edo bleu hitzen itzulpen hutsa besterik, bizkaieraz 'azula' esaten dugu eta ifar aldean, Zuberoa aldean behintzat, 'blua'.

2. Liburu askotan aurki daiteke erreferentzia hau: Perurena (1992: 158), Sarrionaindia (1985: 92), Moco-roa (1990: 291). Azken honek 'gris' itzultzen du.

3. Honen moduko erantzunak jaso nituen: «ez dauka kolore fijo-rik; zurixkie, grise ta berdie mezklaute»; «gaitza esateko, como berde agrisao»; «ongo euskerian zer da? berdie?»... Cf. Preciado (1994a: 420).

4. Ezin ahantz zein adierazgarria den bere jatorria ere, "ur-din"; gai hau dela eta, gauza bitxiak aurkitzen dira. Isaac Lopez-Mendizabalen *Diccionario Vasco-Castellano* delakoan ondokoa irakurtzen dugu: «URDI (de UR-DIN). Gris: *buru urdin*, cano // moho // cardenillo // agua turbia // (*oztin*), azul. URDIN. Azul // (de URDE-DIN), sucio, inmundo // moho».

5. Honi buruz ikus daiteke Preciado (1994b: 9-11).

Bizkaieraz 'urdina' diogunean azul zuritza edo grisatuentzat, edo grisentzat da.

Grisa: Hedatuenetarikoa dugu bereziki ileari atxikitako 'gris', 'cano', 'plateado'...: *ileurdina*. Adibideak nonahi aurki daitezke: «Barba cana: vicarrurdina» (Landuchio 1562: 69), «Jaungoikoak berak esaten deusku... jagi gaitetzala buru-urdinaren aurrean» (Azkue 1969).

Abereengan ere sarri ematen da hau eta Azkuek aipatzen duen ardien kasuaz gain, egun ere baserritarrekin hitz egitean, behi, asto, ahuntz... urdinak erraz azaltzen dira.

Pardoa: Ez ahaztu grekerazko 'párdos' eta latinezko *pardus*-etik sortutako hau –gaztelaniaz gutxienez X. mendetik hona erabilia–, *marrón* galizismo berantiarrekin bigarren mailan baztertuta gelditu dela. Landuchioren hiztegian adiera hau azaltzen da: «Pardo color = colore urdina; pardo animal = abere urdina» (167 or.), eta honez gain s.v. *cano* «Barba cana = vicarrurdina; cana cosa = gauça vrdina» (69 eta 78 or.) eta s.v. *moho*, «moho de pan = oguian vrdina» (156 or.) baino ez da agertzen; hots, honako hau da urdinarentzat agertzen den erdarazko kolore-hitz bakarra.

Ez da agertzen gaurko 'azul, blue'-ren adieran, baina beste alde batetik bai *azul* bera: «Azul cosa = gauça azul» (68 or.). Adierazgarria dela uste dut, are gehiago Aramaioko datuak kontutan hartuz gero.

Berdea: Agian norbait harritu egingo da azeptzio honekin, baina kolore hauen arteko hurbiltasuna (eta nahasmena) agerian jarria izan da sarri askotan (Magnus 69):

En la familia de las lenguas tártaro-finesas, el azul se confunde con el verde y surge igualmente de la noción de gris. La misma observación puede hacerse en vasco.

Honen adibiderik beste kultura batzuetan ere aurki dezakegu: «la palabra galesa *glas* cubre el rango de las palabras inglesas *green* 'verde', *blue* 'azul' y *grey* 'gris'»⁶.

Guretzat, mendebaldeko hiritarrentzat, muturreko kasuak ez izanez gero, inongo arazorik ez dago kategoria hauek bereizteko, baina hauen arteko nahasmena sarri eman izan den fenomenoa dugu. Hainbat kulturatako kolore-hiztegiaren bilakaeran, era berezi batez urdin eta berdearen arteko nahasmenen adibide ugari aurki ditzakegu; Hugo Magnusek, hainbat kulturatan ikertuta, honako datua agerian jarri zuen: «In almost every language investigated, he noted a lack of differentiation between green and blue» (Berlin & Kay 1969: 144).

Geurean ere artoak, ogiak... urdintzen direnean hartzen duten kolorea ez al da gris berdanska? Horrela dugu adiera hau: «fruitu, labore eta beste gai organikoen azalean agertzen den ontto berde-urdinska txiki-txikia» (Bostak bat 1986). Ildo honetatik ez da inor harrituko Plácido Múgicaren

6. Sarri aipatua izan den hau, besteak beste Txillardegik ere jarria du, honako hau gehituz: «...tandis que le mot *llwyd* couvre la frange des 'bruns' plus quelques 'gris' foncés», Txillardegi (1975: 227).

7. Eta honen jarraian: «green and blue are almost always designated with one expression».

hiztegian honako hau aurkitzeaz: «*urdinkara*: verdusco, azulado, azulino» (Múgica 1981).

Honekin batera Patziku Perurenak (1992: 161-162) aipatzen duen kasu bitxi bat, euli urdinarena, ekar daiteke hona:

Gaur egun euli beltza esaten zaionari berari deitzen zitzaola esanen nuke behiala *euli urdina*. Ikusi duenak bai baitaki, euli beltzak eguzkiaren argitara hartzen duen kolore *berde urdinska*.

Beste kasu bat Ondarroan dugu, arrainari buruzko ohizko bereiz-keta egiterakoan: «arrain zurixe, arrain berdi» (ahantzi gabe «gorrixe» ere bereizten dutela).

Azkenik, ez ahaztu (hain zabal-duta egonda ere) euskaraz berde kategoria kromatikoa adierazteko euskal hitz jatorrik ez dagoela eta honek zerbait adierazten duelakoan nago⁸.

Zuria: Bestalde, urdinaren beste esanahi bat azalari atxikitutako *blanca* eta antzerakoan dugu; besteak beste, 'de piel fina, tersa, suave' edota 'criatura hermosa'. Horrela R. M. de Azkuek (1969) jasotakoa:

Azal urdiñagoko amen alabarik eztozu zeure bizian ikusi: zanak kontau zekiozan: hija de madre de tez más blanca no ha visto usted en su vida: se le podían contar las venas⁹.

Edota honako hau (Urquijo 1969: 56):

Doña Urdina de Zamalloa y de Lariz, bisabuela del historiador Garibay, quien dice que era el nombre que mejor daban bien usado en esta tierra; como lo es actualmente como epíteto de una criatura hermosa: *Urdin, urdiña*.

Euskararako Hiztegia-n azeptio hau dugu: «Aurpegiko koloreaz argia dena, beltza edo beltzarana ez dena». Ez da maiz agertzen den erabilera eta gaurko testuetan zenbait aipamen aurkitzea bitxia gertatzen da; esate baterako, Olariagak egindako komiki batean honako hau dugu: «(Indioa) burru-kan dabil oskol-urдинen aurka» (Ipurbeltz 9: 21).

Bestalde, oso gutxi hedatuta ere, badago erabilera bat zuriarekin bereziki lotuta: *zaldi zuria* edo *zaldi urdina*, 'alferkeria, nagikeria' adierazteko (cf. Izagirre 1984: 12; Azurmendi 1988: 54; Perurena 1992: 161).

Edonola ere, ezin da ahaztu kontrajarritzat jo daitekeen 'zikin' esanahiarekin ere azaltzen dela, Azkuek berak (1969) jasotakoaren arabera:

Gero ere atzemanen duzu ni baino urdinagorik, aun más tarde encontrará usted (personas) más sucias que yo (...) Mari-urдин: mari sucia, epíteto que se da a mujer sucia¹⁰.

Ildo beretik P. Perurenak (1992: 162) ekartzen digu zenbait adibide, hauen adiera zehaztuz: «izaki edo gizaki bizidun xahartuak, ximurtuak,

8. *JAKIN* aldizkarian agertzeaz dago honako artikulua: "Zergatik berde kategoria adierazteko euskal hitz jatorrik ez?".

9. Plácido Múgicaren hiztegia ere horrela aurkitzen dugu: «piel tersa, suave».

10. Plácido Múgicaren hiztegia aurkituko dugu «mujer impúdica» eta «itz urдин: palabra desonesta».

galdutakoak edo lizundutakoak adierazteko ere erabiltzen da»¹¹.

Aipaturiko oinarriak horrela ematen dira:

Antzinatasuna: Zaharra dela esan daiteke (Landuchiok aipatua, baita Mitxelenak –zalantzarekin bada ere– 1284.ean kokatuta). Halere, besteak beste, jatorriari buruz esandakoak pentsarazi dezake aurrekoak bezain zaharra ez dela.

Hedadura: Zalantzarik gabekoa, nahiz eta adiera batzuentzako beste hitzen bat edo beste aurkitu, erronkariarena kasu: *dundu*.

Sailkatzeak: Erabilia bai, baina beharbada aurrekoen mailara iritsi gabe: *gibelurdina*, *urdir-sagarra*, *urdintxa (ontto)*, *mirotz urdina*, *putre urdina*, *saturdina*...

Toponimia: Bai: *Arriurdineta*, *Urdinanan*, *Urdindegi*, *Utururdineta*...

Beste esanahirik: Bai, baina ez hainbeste: aipaturiko *mariurdin*, Aramaion erabiltzen den *mutiko urdine*...

Egungo erabilera nagusia dela eta, erdaraz ere honi buruz badago zer komenta, kolore-mota hau agertzen baita zaldi, txakur, katuengan... Ez luzatzeko, adibide batzuk baino ez ditut aipatuko; hain zuzen, katuei buruz dugu (Alderton 1992: 28): «Colores del pelaje: *azul*», eta azalpen bezala: «Este color se acerca más al gris que al azul puro, dado que en realidad se

trata de una forma diluida de negro»¹². Txakurrak direla eta (Taylor 1992: 13): «*Blue Merle*: mezcla de cabellos negros, azules y grises. Grizzle: mezcla de gris *azulado*, rojo y negro»; «los colores *azul* (negro diluido), *beige* (marrón diluido) y *arena* (leonado diluido)». (...) ...«una sembradura de pelos coloreados, negros o *azules* (que dan el entrecano) o leonados o marrón...», «Ejemplo de color *azul*: pequeño lebril italiano, gran *azul* de Gascuña: negro marcado de leonado y blanco moteado entrecano» (Roussetlet-Blanc 1992: 32-33), «Arlequín: perro blanco con señales irregulares generalmente negras o *azules*» (Gondrexon & Browne 1982: 35). Zaldiak direla eta: «*Lobero o Lobito*: Amarillo, *azul* o ratón, dependiendo de la difusión del pigmento» (Hartley Edwards 1992: 20), «Zaino *azulado*» (Silver 1982: 39)...

Bigarren fase batean bada ere, *nabarra* delakoarekin kontatu behar delakoan nago. Ohar gaitezen urdinak duen ezaugarri horrekin jarraitzen ari garela¹³ (ez kolore zehatzik, finkatu gabea, nahastua), baina urdinari ahulezia badagokio, oraingo honetan itxura hori era nabarmenean ematen da: kolore askotakoa, edozein hiztegitan aurki daitekeen adieran: «abigarra, pardo, multicolor, salpicado, color con manchas...». Eratorrizkoetan agertzen diren esanahiak adierazgarriak dira, koloreaz gain itxura orokorrari ematen baitio ezaugarria:

nabardura: 1 kolore desberdinak edo ugariak hartzearen egintza zein ondo-

11. Ikus baita ere 163 eta 165 or.

12. Eta «gatito azul» eta «gatito azul crema», 19 or.

13. Hurbiltasun honen lekuko, P. Perurenak (1992: 157) dakarren adibidea dugu: «Goizuetan, Ainarbeko urtegia egiteko Gorostingo Gainean urratu zuten harmailari bertako artzain batzuk *Harrinabarreta* esaten omen zioten, eta beste batzuk berriz, *Harriurdineta*».


artean hedatuta daudenak bereiz daitezke: *ubel* ('líbido, cárdeno, amorado, oscuro...'); alde batzuetan baka- rriik hedatuak: *arre* (B, G: 'pardo, gris, ocre, revuelto, grisáceo, turbio...'), *uher* (BN-ald: 'turbio' / AN? 'color gris'), *uger* (AN?, L-ain: 'agua turbia' / Bc: 'roña' / BN-s: 'grietas en la piel' / Bc: 'mugre' / Bc: 'herrumbre...'); leku zehatz batekoak baino ez direnak: *beluri* (G-and: 'color pasado, pálido'), *its* (AN-b), *hits* (BN, L: 'color bajo o pálido'; BN: 'sucio'), *musk* (S, Gèze: 'pardo'),... eta ildo honetatik kolore nahasiei buruz Patziku Perurenak aipatutakoak ekar daitezke hona: *maxkara*, *bertzin*, *bretoia*, *pintoa*...

Eta aurrera jarraitu baino lehen eta horietaz arduratzeko aukerarik ez badago ere, derradan aipaturiko marra horretatik harantz badaudela ahaztu behar ez diren beste kolore izendapen batzuk: *oztin*, *mora*, *dundu*, *musker*, *orlegi*...

2.3. Horia, berdea, azula

Denak aldi berean sortu direnik ezin izango da esan, baina kolore hauekin aipaturiko funtsezko ezaugarria atzematen da: koloreak naturan ikustetik kutsu artifizial horretara pasatzen da; beste era batera esanda, merkatu-legeak direla eta, Mendebaldeko eskema¹⁵ hasi da gailentzen, ohizkoa izan den ikusteraren kalterako. Honek berarekin dakar –halabeharrez– zeudenen egokiera eta, horrela, esaterako, gorriak murriztuagoa ikusiko du bere eremua, nabarra bizidunentzat duen ezaugarri horretara mugatuko da, eta

abar.



5. irudia

Hiru dira etapa honetan azaltzen diren koloreak eta hemen beste ezaugarri bat atzemango dugu: jatorriz euskaldunak diren eta ez diren hitzak. Grafikoari dagokionez aipatu behar da, alde batetik, zuri eta beltzaren arteko multzo horretatik bereizketa-prozesua martxan dagoela (nabarrak murriztuagoa du bere eremua ikuspuntu artifiziala gailentzen den heinean), eta bestetik, horia gorritik abiatzen dela zuri aldera eta berde eta azularen arteko bereizketa erabatekoa ez dela. Ikus ditzagun banan banan:

HORIA. Kategoria honetarako beti arretea piztu izan dit ikusteak nola, hain kolore hiztegi urria duen geurea bezalako hizkuntzak, izan ditzakeen hiru hitz, Azkueren arabera, ñabardurak eskaintzen dituztenak; are gehiago, agerikoa den gorriarekiko menpekota-sunaz ohartzuz gero.

Horrela egiten du bereizketa R. M. Azkuek:

HORI: (C,...) 'amarillo, jaunâtre / amarillo del canario'

LARU: (B-aram-leintz) 'amarillo, gualdo, jaune / amarillo pálido, gualdo'

15. Kontutan hartu eskema nagusi hori pigmentu eta tindakariaren garapenarekin oso lotuta dagoela bai eta hizkuntzen arteko parekotasuna bilatu beharrekin ere. Halere, hizkuntza hauetan eskema nagusi honekin batera beste erabilera batzuk gertatzen dira; adibidetzat har daitezke zaldiari buruz gaztelaniaz egiten diren koloreen izendapenak: *picazo*, *tordo*, *bayo*, *ruano*, *alazán*, *pío*, *overo*, *isabela*, *ratonero*, *lobero*, *zaíno*, *ruano-fresa*, *avellana*...

BEILEGI: (B-a-o-ts) (B-b-l-m) 'amarillo muy vivo / de color vaca'¹⁶.

Ez al da harritzekoa horrelako aberastasuna egia izateko? Neroni horretan nago eta, izendapen hauek direla eta, ez dut inoiz bereizketarik entzun. Arratia aldean *beilegi* esaten bada eta Aramaio inguruan *laru*, horiaren parekoak direla ez dut zalantzarik, eta ohizkoaz gain beste bat erabiliz gero, erabilera zehatzetarako izaten da; horixe da hain zuzen, Aramaio kasua, *beilegi* (*belegixe*), ganaduari soilik atxikitzen baitzaio. Bestalde, etimologikoki begiratuta, *laru* hitza *klaro*-tik dator eta *beilegi* hitzaren jatorria (Txillardegi 1975: 232) *behi-legi* omen da (*orlegi* neologismoak –*orri legi*– jatorri berdina luke). Dena dela, edo ordezeko gisa erabiltzen da edo erabilera zehatzetarako. Idiak direla eta, hona hemen beste leku bateko adibidea (Ondarroa 1983: 21) forma berezi horretan:

Aida txuri ta belio
zelarian daguehari
begiak ertengo al dio

Ikus dezagun bada, gehien hedatuta dagoena:

Horia: aipatu dudan bezala, kasu honetan zerbait nabaria bada gorriarekiko menpekotasuna da eta hau adibide frankotan ikus daiteke: «Euskaldunek “gorri” izendatzen ditugu, berez “hori” diren ikusgailu asko: Arraultza-gorringoa, gure mendietako behi gorriak, nafar ardi mutur-gorriak, Ipar-gizon bilo gorriak» (Larzabal 1975: 402). Eta datu hauei beste batzuk gehi diezazkiekegu: *tabako gorria*, *urregorria*, *ilegorria*...

Landuchioren hiztegiari begiratuz

gero (1562: 187) honako hau aurki daiteke: «Ruuja cosa = gauça oria» eta «ruujo encendido = ori gorritua, gorria», eta erdaraz ere antzeman daiteke hurbiltasun hau: *rubio*, *rubicundo*, *ruborizarse* = *ponerse rojo*.

Etimologikoki, ezer ziurtatu ezin badut ere, hurbiltasun honek agerikoa ematen du: *gorri* > *gori* > *hori*; denok dakigun bezalaxe, labea gori-gori dagoenean gorritasun horretatik haruntzago dago.

Seinalaturiko oinarriei dagokienez:

Antzinatasuna: Menpekotasun horrek eta datu etimologikoen geroagokoa dela esatera garamatzate.

Hedadura: Ez erabatekoa; badaude hainbat era.

Sailkatzeak: Oso gutxitan: *lepaori* ‘marta’, *ziza ori*, *ezko ori* (‘higróforo amarillento’)...

Toponimia: Oso, oso gutxitan eta bixiak: *irularueta* (Legutio).

Beste esanahirik: Ez (‘ictericia’ edo kenduta).

BERDEA: Honen jatorria agerikoa da; hain hedatua eta psikologikoki hain oinarrizkoa izanez, euskaraz zergatik ez dagoen hitz jatorrik kategoria hau adierazteko batek baino gehiagok egindako galdera da; baina ez naiz luzatuko, lehen aipatu dudan bezala, jadanik galdera horri erantzuten dion artikulu bat idatzita dago eta.

Ezer nabarmentzekotan, etapa honetan (eta hemendik aurrera) ezaugarria izango dena aipatuko dut:

16. Kintanaren hiztegian horrela aurkitzen dugu: «(B) amarillo oscuro, casi naranja o marrón claro».

koloreari soilik (edo ia soilik) atxikitako hitzak dira hauek. Halere, baten batek aipa dezake *berde* hitza duen esaldi bat kromatikoa ez den esanahirekin. Kasu bat ezagutzen dut nik, itsaso, haize eta, oro har, eguraldiari buruz esaten dena¹⁷ eta Azkuek edota Perurenak (1992: 78-79) jasotzen dutena: «eguraldi busti zipotzantza». Interesgarria litzateke honen jatorria miatzea eta, esaterako, itsasoak haserretzen denean hartzen duen kolore itxuraz jabetzea; hortik abiatuta uler daitekeelakoan nago, baita ezizen bezala erabiliz, genio txarreko pertsona adierazteko aipatzen denean ere (Ondarroan kasu). Baina beste guztiak erdal gorrinak sorturikoak direla uste dut; horrela tabako hostoak heldugabe daudela adierazteko *berdeak oraindik* esatea, edo okerrago dena, tabako gorriari *tabako horia* deitzea¹⁸, edo astakeria galanta baino ez den *txiste orlegiak* esatea¹⁹. Larzabalek (1975: 403) berak ohartarazi zigun: «*Solas ferdeak, Ferdekeriak* ez dira etorkiz euskaratik, baina erdaratik. Euskaraz erraten dugu *Solas gordinak, Gordinkeriak*».

Hau dela eta, oinarrizkoei buruz hona hemen hau:

Antzinatasuna: Erromatarrekin hartu-emanetan sorturikoa izanda ere (Villasantek dioen bezala), gutxienez aipamen bat dugu XIV. mendean kokaturik²⁰.

Hedadura: Erabatekoa, batzuen

harridurarako: «Choca que siendo extraña esta voz, como lo creen todos, no haya otra que designe este color tan común, que su variante *ferde*» (Azkue op. cit).

Sailkatzeak: Ez (nahiz eta Ondarroan arrainari buruz egiten den bereizketa gogoratu behar).

Toponimia: Ez (salbuespenik aurki badaiteke ere: *bideberdea* (Intxausti 1994: 2).

Beste esanahirik: Ez (aipatutakoa kontutan hartu).

AZULA. Honako hau Landuchiok berak aipatua dugu eta gaur egun alde batzuetan (Bizkaian oro har) nagusi da kolore-mota horri atxikia, *urdin* utziz grisarentzako edo, lehen urdinari buruz hitz egitean Sarrionaindiaren aipamenarekin agerian jarri izan den legez.

Egun kategoria kromatiko honetarako *urdin* gailenduta bada ere, bila-kaera historikoan emandakoa da. Aramaion ikusitakoaren arabera, grisa atxikitzen zitzaien praka, txaketa, arropa, horma, aldameneko gasoleo bidoiari, hots, nagusiki gauza artifizialak pigmentu edota tindakariekin kolore hori emanda zeudenei eta beraz, era homogeenan agertuz. Bestela urdina bizidunengan ematen da eta horrela ardi, behi, ahuntz, perretxiko, enbor urdinak... ez kolore homogeen, tartekoa, ñabardurak eta nahasketak emanez baizik.

17. «Itso berdi, ipar berdi...», Ondarroan jasoa.

18. Bi hauek bazkalostean eta Iñaki Perurenaren eskutik egin zen Maeztu eta Kanpetzu aldeko inguruei buruzko erreportaje batean agerturikoak dira: ETB, "Euskalerrian barrena", 1991-XI-15.

19. Amatiñoren zuzendaritzapean EGUNA astekarian agertzen zen atal baten izenburua zen hau.

20. Michelena 1964: 57-59. Berebat Landuchioren hiztegian erdal hitz hau eta aditz bihurturik (*verdecerse*) euskarara itzuli gabe dago (190 or.). «Hojaldre...orri verdea» (136 or.) eta «piedra sufre...verde sufrea» (172 or.) dira honi buruz dauden beste aipamenak. Azken (harrigarri) honi buruz Mitxelenak gaineratzen du: «las primeras letras de *verde* están escritas sobre algo anterior».

Bereizketa hau atzemateko Eduardo Gil Beraren hitzak ekar ditzakegu hona (Perurena 1992: 151)):

Nik etzakit deus, biño gauz batzutan “*axul*” soilik erabiltzen diu, por ejemplo, kotxiak eta trajiak aipatzeko. Niri kaskoratzen zaidak “kotxe *axul* bat” eta sukula ez “kotxe *urdin* bat”. Gauzaki batzundako, eta gogo batzundako berdin, *urdinak* badik konotazio sobera kolore esaktoren bat adierazteko.

Bestalde, 5. irudian berde eta azulen arteko hurbiltasuna era nabarmenean irudikatu dut. Guretzat, muturreko kasuak ez izanez gero, inongo arazorik ez dago kategoria hauek bereizteko, baina hauen arteko nahasmena sarri eman izan den fenomeno dugunez, erreferentzia *urdin* hitzak duen ‘berde’ adieran egin dut.

Bereizketa hau ez dela hain erraz egiten eta zailtasunak daudela oharatzeko kasu anitz aurki badaiteke ere²¹, Berlin eta Kay-ren ikerketa aipatuko dut, adierazgarria baita hainbat kulturatan izandako emaitza; bertan, berde kolorea izan zen erantzun sakabanatuenak sortarazi zituena eta ondorioz, eremurik zabalena berak betetzen zuen²². Eta gutxi balitz,

urteak igarota, proposaturiko aldaketa erabat esanguratsua da: «Kay propuso una revisión de su teoría proponiendo *verdul*» (Leech 1981: 305).

Berdea eta urdinaren arteko nahasmenak gure testuinguruan ere atzeman daitezke, alde batetik mugagaiztasun hau agerian utziz eta bestetik erdarazko koloreekin (hots, nagusia den ikusteko era honekin), dagoen ustezko parekotasuna zalantzan jarriz. Lehenengo kasua Aramaioko baserritarrekin egindako elkarrizketetan azaldutakoa izan daiteke, bertan eta zaharren artean 26 elkarrizketatuetatik 11 kasutan nahasmena eman edo gutxienez, oharren bat jarri izan bainuen nahasmen hori agertzen zela adierazteko; esaterako, berdeari *azule* deitu zioten, nahiz eta gero zuzendu, edo aukeraketetan zalantza-mudantzan egon ziren, eta nahiz eta okerrik ez egin, bere andreak nahastu ohi dituela azaldu zuen batek²³.

Ikuspegi honekin bukatzeko, esan beharra dago koloreen arteko mugatze-arazoarekin topo egiten dugula eta agerian da egun erraz bereizten diren ‘hori’, ‘berde’ eta ‘urdin’ kolore-kategoriak beti ezberdiz gabe ez direla bereizi²⁴.

21. Aspaldiko liburu interesgarri bat aipatzearen: «Le bleu et le vert sont très répandus dans la nature (...). Les Anciens ne les ont pas toujours nettement distingués, parfois même ils les ont confondus» (Jodin 1903: 27). Eta beste momentu batean: «Le ciel, la mer, la végétation donnent le bleu et le vert: ce sont donc des notions primordiales de couleurs, mais elles sont mal définies, puisque le bleu et le vert sont parfois pris l’un pour l’autre», Jodin (1903: 43).

22. Ikus “Appendix I: Terms and mapping for twenty experimentally investigated languages”, Berlin & Kay (1969: 113-133).

23. Preciado *op. cit.*, 414, 415, 417 eta 591 or. bereziki. Kontutan hartu beste kasuren bat ere eman izan dela, adibidez, elkarrizketuren baten senarrak parte hartu duenean zati bat betez.

24. Txillardegik (1975: 225-226) planteiatzen du, besteak beste, kasu hau: «Nous connaissons tous le mot “chlorophylle”, proposé par les chimistes français Pelletier et Caventou en 1817 pour désigner la substance *verte* des feuilles des plantes. Dans ce mot la racine grécque “chloros” a pris une valeur proche de notre appellation “vert”. Mais nous connaissons aussi le mot “chlorose”, qui dessigne une “maladie des plantes provoquant la jaunissement des feuilles” (Larousse); et dans lequel la racine “chloros” a pris une valeur proche de notre terme “jaune”. Voilà donc une contradiction apparente: jaune ou vert?».

Aipaturiko oinarriei dagokienez:

Antzinatasuna: Landuchiok aipatzen du: «Azul cosa = gauça azul» (68 or.).

Hedadura: Mugatua. Bada beste hitzik ere.


Sailkatzeakoak: Ez.

Toponimia: Ez.

Beste esanahirik: Ez.

2.4. Marroia, grisa, laranja, morea, arrosa

Aurreko urratsean bezala, ez nuke esango denak aldiberean ematen direnik, baina edonola ere ez da hori garrantzia duena, jadanik esandako alde pigmentarioak hartzen duen zalantzarik gabeko lehentasuna baizik. Honek jatorrizkoen eremuak egokituak eta murriztuagoak izango direla esan nahi du, kolore berri hauek euren tokia izan dezaten. Gure kasuan nabaria da hau, gero, banan-banan ikusiko dugun legez. Lehenengo fasea, iragapenekoa, 6. irudian ikus dezakegu, gaurregun 7. irudira iristeko gero.



6. irudia

Grafiko honetan nabaria da gorriaren eremua txikiagoa dela eta marroia oraindik bere magalean dagoela, geroago erabat bereizteko; jadanik horia bereizita, baina laranja oraindik

hori eta gorriaren artean; arrosaren agerpena oraindik zuri eta gorriaren menpe eta beste hainbeste dago esateko azul eta gorriaren arteko moreari buruz; zuri eta beltzen arteko zubi hori desagertzeaz dago, grisak bere nortasuna finkatzen duen bitartean, urdin eta azularen arteko lehia horretatik bereiziz; eta oraindik loturik bada ere, berdea erabat bereizteko egoeran dago. Azpimarratzeko azken datua itzal horiekin adierazi nahi dena da, hots, kromatikoak ez diren esanahien presentzia gorri, beltz, zuri eta (bere neurrian) urdinaren inguruan, oraindik ere pisu nabarmenarekin ikusten da; denboraren poderioz desagertzen joango dira, alde kromatiko hutsa gailentzeko.

Banan-banan aztertuta ikus daiteke, esate baterako, *marroia* agertzeak gorriaren eremua murriztea dakarrela; halere, gorriaren itzalean dirauela adierazten digu zenbait datuk; adibidez, bizidunak sailkatzeo hedadura mugatuta du, *gorria* baita erabiltzen dena, hau gauzen ezaugarri kromatikoak azpimarratzeko gelditurik; abelgorri edota behi pintuen artean, zuri-gorriak har daitezke adibidetzat.

Maileguzko kolore-hitz hau gaurko gazteengan erabat finkaturik dagoela esango nuke, baina zaharrengan entzun ahal izan dut lehengo erabilera, hots, bizidunekin *gorria* erabiliz. Bestela, *marroi* baino zaharrek maizago erabiltzen dituzte beste forma batzuk, metafora, metonimia eta horrelako eratan batuta daudenak, besteak beste, *kastaino*, *txokolata*, *tabako kolorea*...

Aipaturiko herrian nabarmenki agertu zen ordezkatzeko-prozesu hau eta, esate baterako, «Zein koloreta-koa?» atalean, zaharren *marroi* aipa-

menaren kopurua bider lau (eta gehi-
go ere) atera zuten gazteek eta *gorri*
delakoarekin ordea, zaharrek gazteen
kopurua bikoiztu baino gehiago egin
zuten (Preciado 1994a: 441). Adibide
adierazgarriak ere aurkitzen dira: za-
harren *zurigorria* gazteek *zuri-marroia*
izendatu dute; lurraren koloreari buruz
galdetuak, zaharrek hiru koloreekin
identifikatu baldin badute (*beltza*,
gorria, *zuria*), gazteak ordea 1,5an
gelditu dira, marroia erabat nabarmen-
duz (% 61,54). Zaharrengan ere
ikusten da eragin hau eta nola ari den
bere eremua hedatzen; adibidez,
behiei buruz galdetzean andrazko
batek *marroia* esan zuen eta orduan
senarrak gorriei buruz itaundu zion:
«Bai baina ez die gorri-gorrixek» berak
erantzun.

Baina agian, LARANJA-rena oraindik
nabariagoa da, Aramaion ikusitakoa-
ren arabera behinik behin²⁵. Zaharren
erabilera nagusia *laru* den bitartean,
gazteentzat, ordea, *hori* da nagusia,
baina bi hauek ezin dira erabat ki-
detzat hartu, zaharren laruak gazteen
horia gehi laranja hartzen baitu, hau
da, gazteek kolore-hitz berri bat dute
eremu kromatiko bat bereganatzen
duena eta, ondorioz, horiarena urria-
goa gelditzen da; zaharrek kolore hitz
bakar batekin gazteen bi eremu
kromatiko hauek betetzen dituzte.

Hau erraz ikus dezakegu talde bi
hauek hitz bakoitzerako egindako
aukeraketez ohartuz gero²⁶:

26	Zaharrek	Gazteak	26
LARUA :	VI.2A: 3+1*	14+1*	: HORIA
	VI.1B: 7+1*	11+1*	
	VI.1D: 1 VI.4D: 1 VI.6D: 1		
	V.1D: 1 V.4D: +1* VI.3B:10+1*		
		V.1D: 5 V.3D: 4 V.4D: 6 VI.4D: 5	: LARANJA
		VI.4D: 2	22

Zaharren laminen aukeraketa gehie-
nak bi muturretan kokatzen dira:
hamaikak laruztat aukeratu dituzte guk
horia deitzen ditugunak (*Schwefel-gelb*
/ Leuchtgelb) eta beste 12k laranjatzat
joko genituzkeenak (*Paste-llorange*,
Reinorange, *Leuchthelloran-ge*), hiru
geldituz tarteko kolore horiekin (nahiz
eta familiakoak izan: *Zinkegelb*,
Melonengelb, *Safrangelb*).

Horiari dagozkion gazteen aukera-
ketak garbiki kokatzen dira, salbuespe-
nik gabe, erdarazko *amarillo / yellow*-
en eremuan, baina badute beste
kolore hitz bat *-laranja-* horiak bete-
tzen ez duen alorrarentzat. Kategoria
kromatiko berri honentzat egindako
laminen aukeraketak bat datoz zaha-
rrek laruarentzat egindako muturreko
batekoekin eta laranjatzat hain egokia
jotzen ez duguna (VI.4D) zaharrek ere
aukeratutakoa da tartekoen artean²⁷.

GRIS-aren kasuan naturan azaltzen

25. Hurrengo lerroak Aramaion buruturiko ikerketara mugatzen badira ere, inork ez dezala pentsa apartekoa edo kasu berezia denik. Aipaturiko Berlin eta Kay-ren liburuan, II. eranskinean hain zuzen, kultura ez-garatueta laranja gorri edo horiaren eremuetan aurkitzea arras arrunta dela ikus daiteke.

26. Zenbaki erromatarrekin hasten direnak laminak identifikatzen dituzten klabeak dira. Marraz irudikaturiko mugek kategoria kromatiko bakoitzerako onartezinenak markatzen ditu edota kolore-mota ezberdinak. Elkarrizketatuak bi laminen artean kokatu duela bere aukeraketa adierazten du izartxoak.

27. Laranjarentzat 26 erantzun egon beharrean 22 bakarrik egoteak adierazten duen gauza bakarria kategoria hau bere kabuz aipatu eta aukeratu zutenen kopurua da, jatorrizko galde-sortan ez baitzen sartzen eta gelditzen diren lau kasuak galde-sortaren beste atalak egiterakoan aipatu baitzuten hau,

diren koloreak eta artifizialki sorturikoen arteko aldea eta ildo honetatik *urdinarekin* duen lehia agerian dago. Jadanik honi buruzko erreferentzia egina dago, baina bi kolore hauek bereizteko eta euren erabilerez jabetzeko aipa ditzadan, ezaguna dugun ikerketa horretan (Preciado 1994a: 421) elkarriketatu bik egindako azalpenak:

batek [3] "urdina" ez dela "gris" hutsa, nahastuagoa baino, esan zuen, eta alboan zegoen horma jarri zidan "grisaren" adibide bezala, grisak direla ere prakak eta oihaletan asko erabiltzen dela gaineratu zuen; besteak [4] ganadutan ez dela "grise" erabiltzen "urdine" baino esan zuen, astoak, ahuntzak, ardiak, behiak,... adibide bezala jarri. Ildo honetatik adierazgarria zaharrek laminetan 'urdinik' ez aipatzea eta bai ordea 'grisa'.

ARROSA berria da, gaztelaniaz ere. Metafora, metonimia, perifrasi eta beste, arruntak dira kolore munduan, honako ageriko hau kasu. Euskaraz kategoria hau adierazteko erabilera batzuk izan direla ezin da ahaztu, bereziki *zurigorri* edo *gorrizuri* formak, adibide ugariarekin (Perurena 1992: 133-136; 226). Halere, arreta deitu nahi dut Aramaion egindako ikerketan aldaketa fonetikoa baino ez delako itxuraz, askoz larriagoa den arazoaz.


Gazteekin hitz egitean sarri entzuten diren forma batzuek zaharrekiko berbakera desberdina agerian jartzen dute: *baltz* > *beltz*, *zurixe* > *txuria*, *gorrix*e > *gorria*... Arrosa kolorearekin ordea, urrunago doana dugu: zaharrengan hain maiz ez agertzea eta izendapen zaharra aurkitzeaz gain (*zurigorrix*e edo *gorrizuri* formak, kasu guztiotan gizonezkoek aipatuak), erabilitako erak *rosie* edo *rosa* bera

izan dira (behin edo behin *arrosa* ere agertuz, bai eta erdaraz esateko joera ere azalduz, nagusiki emakumezkoen partetik, jakina).

Gazteek ordea, dexente erabili dute *larrosa* forma, erdal eragina nabarmenduz, bereziki kontzeptuan bertan: erabilera hau dela eta, kolorea eta lorea batzen dira; zaharretan ordea, okerrik ez dago, azken honek lorea baino ez baitu adierazten, kolorearentzat aipatutako besteak utziz.

MOREA edota LILA direlakoek, biek jatorri antzerakoa dute, landare mundua alegia, eta aipaturiko tropo linguistiko horietan kokatu behar dira; kategoria kromatiko hau adierazteko erabiltzen diren baliabideak ugariak dira, nola ez, eta batzuk bitxiak: *Nazareno kolorea* kasu (Nazarenoaren kaparen kolorea, alegia), Aramaion jaso.

Identifikatzeko zalantza ugarikoa da hau eta gizatalde ezberdinetan bata edo bestearen nagusitasuna azaltzen bada, oinarrizko koloreei buruz arituz gero kategoria bakar bati dagokiola esan daiteke.



7. irudia

Hau guztia esanda eta erdal eragina dela medio, 7. irudiak eskaintzen duen

laranja kategoria 26 hauek erabili zutelarik. Esan beharra dago zenbait zaharrek hau aipatu egin zutela galde-sortaren beste ataletan (emakumezkoak nagusi).

erabateko bereizketa horretara iristen gara, non kategoria kromatiko bakoitzak bere eremu propioari eusten baitio. Hala ere hau ez da erabat ematen; egoerak, baldintza ekonomikoek bereziki, bermatzen du alde pigmentarioa, artifiziala gailentzea, baina erabilera zehatzetarako besteak ere agertzea gertatzen da:

...en las lenguas de pueblos que han alcanzado cierto grado de desarrollo, hay clasificaciones internacionales que conviven con las populares y en parte se sobreponen a ellas (...): en nuestro caso, los famosos colores del espectro (Michelena 1985: 168).

Horregatik, alde batetik hizki nabarmenduekin daude pisu gehien dutenak, berantiarak direnetatik bereziak, eta bestetik, beste esanahietarako jarritako itzalak ahultzen badoaz ere, desagertzeko kinkan jarriz, oraindik hor diraute.

Aipaturiko oinarriari buruz, oso datu adierazgarriak agertzen dira, espero zitekeenez:

Antzinasuna: Berriak.

Hedadura: Era ezberdinak Ipar eta Hegoaldekoen artean bereziki, baita forma ezberdinak ere: *arrosail*, *rosi*, *arrosa*... baina funtsean gauza bera

Sailkatzekoak: Ez

Toponimia: Ez.

Beste esanahirik: Ez.

3. Halabeharrezko gogoeta bukatzeko

Mitxelenaren aipamenaren haritik uler daiteke azken etapan Mendebaldeko mentalitatean hedatuta dagoen eskema gailenduta egotea, baita beste

erabilera batzuek bizirik irautea ere. Hauxe da hain zuzen geurean gertatzen dena eta koloreak direla eta, ezin da eskema bakarrari buruz hitz egin, mailak baitaude erreferentziazko taldeen arabera, besteak beste Aramaion oso garbi egiaztatu ahal izan nuen bezala. Oinarrizkoenak zahar-gazteenak dira, baieta gizonezko-emakumezkoenak ere; baina ez da oso urrutira joan behar lanbideen araberrako taldeak egin behar izateko eta honekin batera kokapen geografikoa kontutan hartzeko ere.

Honez gero irakurlea jabetuta dago agerikoa denaz, hots, artikulua honekin ez dela euskal ikuspuntua erabat aztertzen, honako honek ez baitu alde bat baino plazaratzen. Kolore fenomeno egoki ulertzeko beste puntu anitz aztertu behar dira eta euskal kasuari dagokionez, begibistako arrazoiak direla medio, hemen garatuko ez ditudan zortzi klabe kontutan hartu behar direlakoan nago: aipaturiko bilakaera historikoa eta mailak, natura-artifizialtasuna bereizketa, xedearen arabera deskribatu eta sailkatzea, kolore-hiztegia eta baliabideak, kolorearen garrantzia, sinbolismoa, oinarrizko koloreak eta erabilerak, kolore hitzik ez izatea.

Jadanik bilakaerarekin batera, azken klabe hauen zertzelada batzuk, erreferentzia batzuk (zeharka izanda ere) azaldu dira, edozein ikuspuntutatik gaiari ekitean besteekin nola edo hala kontatu beharra baitago; horrela esan nuen sarreran, haien arteko eragina nabaria zela adieraziz. Hemen, beraz, ez da lana bukatzen eta euskal kulturak duen kolore fonomenoari buruzko ikustera osatzeko, klabe hauei eta hauen haritik datozenei, disziplinartekotasunaren itzaletik, arreta zuzendu behar zaielakoan nago.

Aipaturiko liburuak

- Azkue, R. M^a., (1969): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- Alderton, D., (1992): *Gatos*, Omega, Bartzelona.
- Azurmendi, M., (1988): *El fuego de los símbolos*, Baroja, Donostia.
- Berlin, B. & Kay, P., (1969): *Basic Color Terms. Their Universality and Evolution*, University of California Press, Berkeley and Los Angeles.
- Bostak bat (1986): *Euskararako hiztegia*, Adorez 2.
- Gondrexon, A./ Browne, I., (1982): *Guía de los perros del mundo*, Omega, Bartzelona.
- Hartley Edwards, E., (1992): *El gran libro del caballo*, El País, Aguilar.
- Hudson, R. A., (1981): *La sociolingüística*, Anagrama, Bartzelona.
- Intxausti, J., (1994): *Euskara Araban*, Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- Ipurbeltz* 9, Erein, Donostia.
- Izagirre, K., (1984): *Euskal lokuzioak*, Hordago.
- Jodin, A., (1903): *Etude comparative sur les noms de couleurs*, A. Chevalier-Maresq., Paris.
- Landuchio, N., (1562: 1958): *Dictionarium linguae Cantabrigae*, Agud, M. eta Michelena, L. (edd.), "Julio de Urquijo" Mintegia, Donostia.
- Larzabal, P., (1975): "Euskaldunak eta koloreak", *Euskera XX*, 401-402.
- Leech, G., (1981): *Semántica*, Alianza, Madril.
- Lopez-Mendizabal, I., (1976): *Diccionario Vasco-Castellano*, Auñamendi, Donostia.
- Luria, A. R., (1980): *Lenguaje y pensamiento*, Fontanella, Bartzelona.
- Magnus, H., : *Evolución del sentido de los colores*, Hachette, Buenos Aires.
- Michelena, L., (1964): *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madril.
- , (1985): *Lengua e Historia*, Paraninfo, Madril.
- Mocoroa, J. M^a., (1990): "Ortik eta emendik", *Repertorio de locuciones del habla popular vasca*, Labayru, Eusko Jaurilaritza, Etor, Donostia.
- Múgica Berrondo, P., (1981): *Diccionario Vasco - Castellano*, Ed. Mensajero, Bilbo.
- Ondarroa* (1983), 21, Ondarroako Kultur Etxea, Ondarroa.
- Perurena, P., (1992): *Koloreak euskal usuarioan*, Erein, Donostia.
- Preciado, J. M^a., (1994a): *Kolorea herri euskaldun batean*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, Leioa.
- , (1994b): : "Zer da urdin?", *Zehar*, 26. zk., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Rousselet-Blanc (1992): *El perro*, Martínez Roca, Bartzelona.
- Sarrionaindia, J., (1985): *Ni ez naiz hemengoa*, Pamiela, Iruñea.
- Silver, C., (1982): *Guía de los caballos del mundo*, Omega, Bartzelona.
- Taylor, D., (1992): *El gran libro del perro*, El País, Aguilar.
- Txillardeggi, (1975): "La structuration du champ semantique de la couleur en Basque", *Euskera XX*, 221-238.
- Urquijo, Julio de (1969): "Nombres vascos", *RIEV V*.
- Villasante, L., (1989): *Euskararen auziaz*, Luis Elizalde saila, 9. liburukia.